

LIBURUTEGIAREN DIZIPLINA-ARAU BIDEA

ARAU-HAUSTEAK

Arau-hauste **oso larriak** honako hauek izango dira:

- Liburu, aldizkari edo beste material mota lapurtzea.
- Mailegatutako materialak ez itzultzea.
- Liburutegiko instalazio eta ekipamenduetan kalte larriak sortzen dituen erabilera desegokia.

Arau-hauste **larriak** honako hauek izango dira:

- Edozein motako funtsa bibliografiko galdu edo hondatzea. Galdu edo hondatzen badira, funtsa horiek ordeztu edo ordaindu beharko dira.
- Behin eta berriz arau-hauste arinak egitea.

Arau-hauste **arinak** honako hauek izango dira:

- Liburutegiko ordenaren nahasmendua (sakelako telefonoen edo beste tresnen erabilera, erretzeko debekuaren haustea, isiltasunaren beharra, eta orokorrean, asaldura sortzen duen beste edozein portaerak).
- Mailegatutako dokumentuen itzultzeko epeak ez betetzea. Dagozkien zigorrak, Mailegu Zerbitzuaren Araudian kontsulta daitezke.

ZIGORRAK

Arau-haustearen larritasun mailaren arabera, ondoko zigorrak ezarriko dira:

- ❖ Liburuak, aldizkariak edo beste materiala lapurtzeak Liburutegiko txartela behin-betiko galtzea eta Liburutegian ezin sartzea ekarriko ditu. Zigor bera ezarriko da Liburutegiko instalazio eta ekipamendua gaizki erabiltzen bada, honi kalte larriak sortuz.
- ❖ Materialak ez itzultzeak Liburutegiaren zerbitzuak ezin erabiltzea eta Liburutegiko txartela behin-behineko galtzea ekarriko ditu. Hauek berreskuratzeko materiala itzuli beharko da eta zigorraren epea (hiru hilabetetik urte batera) bete beharko da.
- ❖ Materialak galdu edo hondatzen badira, hauek ordeztu beharko dira edo eguneratutako balioa eskudirutan ordaindu.
- ❖ Mailegatutako materialak epez kanpo itzultzen dituen erabiltzaileari mailegu zerbitzuaren etenaldi batekin zigortuko zaio. Etenaldi honek maileguaren atzerapeneko denbora iraunduko du.
- ❖ Liburutegiko behar bezalako ordenaren asaldurak ohartarazpena ekarriko du, edo azken buruan, txartelaren galtzea.
- ❖ Arau-hauste arinak behin eta berriz eginez gero, erabiltzaileak Liburutegiko txartela galduko du (hilabete batetik sei arteko zigorra).

Neurri guzti hauek hartu eta indarrean jartzeko ardura Liburutegiko langileena izango da. Egindako arau-hausteak beste erantzukizunak baditu, Liburutegiko langileek Ikastetxeko Zuzendaritzari jakinaraziko diote.